

Azken hitzak

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Zinez ohargarriak izan dira gaur hemen entzun ditugunak. Beste behin ere, Nafarroako Ikastolak eta, oro har, Euskal Herriko Ikastolak eta Euskaltzaindia bat eginik ikustea pozgarria da, besteak beste, euskararen inguruko langintza adierazten dutelako bi-biek.

Euskararen Akademiak eskertu nahi ditu Tafallako herria eta udal-
deak, Tafallako ikastolako arduradunak, irakasleak, ikasleak, gurasoak eta
langileak eta Nafarroako erakundeak eta elkarteak, egin diguzuen harrera
amultsuarengatik. Eskerrak, orobat, ekitaldi honetan hizlari eta entzule izan
zaituztegun guztiontzat eta jakina, akademiaren gogo bizia, *Nafarroa oinez*
aurten ere arrakastatsua izan dadila.

Horretan lan egingo dugu, horretan eta zer esanik ez, euskara aurrera
eramaten eta aitzinatzen Nafarroan eta Euskal Herrian.

Mila esker